



### Malkoekin josi daiteke kapa bat

Urpekariek kapa bat aurkitu dute itsasora, haiz batzuetan iltzatuta. Ikertzaileek ez dakite ze kapa mota den: material bereziz eginda dago eta egur zatiak, koralak, bainujantzi zatiak eta malkoak ditu osagai. Norena izango ote da? Zertarako balioko du itsaso itxurako kapa horrek? Misterioa argitzeko laborategira eramatu dute kapa berezia, estrukturatua batena izan ote daitekeen hipotesiarekin. Datorren egunetan emango dituzte aditzera emaitzak.

**Itsaso bete malko**  
Amaia Trejo eta Iker Mugarra.  
1545 argitaletxea, 2024  
978-84-127245-8-5  
Albuma  
+6

### Ikusezina ikusgarri bihur daiteke marrazkiaren bidez

Maddi Astigarra biomedikuntzan lizentziadunak kezka bat du: ulertzeko eta ikusteko zailak diren gauzak deni modu errazean ulertarazi nahi dizkie. Horretarako, marraztu egiten du, edozein teknika erabilita. Euskal Herrian ditugun polinizatzaileak eta intsektuak, izaki txiki baina ezinbesteko zaizkigun horiek ere horrelaxe azaltzen dizkigu. Eta bide batez, erronka botatzen digu: intsektuak eta polinizatzaileak begiratu, aztertu eta teknika librean marraztu eta intsektuen gida bat sortzeko.

**Koloretako intsektuak**  
Maddi Astigarra Bergara.  
Sua Edizioak, 2024  
978-84-8216-869-2  
Ezagutza jolas-liburua  
+6



### Lehenengo lorategi pozoitsuaren atea ireki dituzte

Era askotako lorategiak daude: usaindu loreak dituztenak; zuhaixkez osatutakoak, jangarriak diren lore eta barazkiez osatutakoak... Baina historian lehen aldia da, lore beldurgarri eta pozoitsuak osatutako lorategi bat landatzen dena. Milaloren Txilintok sortu ditu lehenengo honako landare espezieak: Kaskazur lorea, zeinetan kaskazurrak ikusi daitezkeen benetan; Likits lore zurrustariak, ondotik pasata gainean botaka egiteko arriskua dago; Esne lore mamitsua, ondoan kollara eta guzti, dastatu ahal izateko; Suge landarea; Mamu asuna; Oilo landarea... Sortu berri den lorategi berritzaile eta beldurgarri honetara bisitatu joan zaitezke, baina bidetik irteera galarazita dago.

**Milaloren lorategi pozoitsua**  
Christy Mandin.  
Itzul.: Bakun SL.  
Ibaizabal, 2024  
978-84-1370-627-6  
Albuma  
+6



### Zertarako balio du zertarako galdetzek?

Zuhaitz baten azpian jarri eta "Zertarako balio du?" galderarekin hasten da jolas hau. Eta jakina den bezala, galdera batek beste galdera bat sortzeko balio du. Eta horrela, gaur egun arte pertsonaren Historian egin izan diren funtsezko galdera ia guztiak batu dira jolasera. Izan ere, galdera batek beste galdera bat egitera eramaten gaitu, erantzuna aurkitu aurretik. Norbaitek probatu nahi du? Hasi galdetzen: Zertarako Balio du?

**Zertarako balio du?**  
José María Vieira Mendes eta Madalena Matoso.  
Itzul.: Bego Montorio.  
A Fin de Cuentos, 2024  
978-84-1968-421-9  
Ezagutza libururua  
+6



### Begiekin entzun daiteke

Durundia eta kirinka, garrasia eta xuxurria, karraska eta triki-traka, eztanda eta ufada, purrustada eta solasa. Seguruenik soinu mota hauek guztiak entzun dituzu inoiz, baina imajinatu dezakezu zelan entzuten diren marraztuta badaude? Batzuetan, orrialde hauetan bezala, soinuak ez datoz entzumenetik begietatik baizik: soinu betetako orrialdeak dira eta zuk bakarrik entzungo dituzu. Zure ahotsari iriten utzi eta soinu bidez kontatu nahi duzu begi bidez entzun dituzunak?

**Spinne Spielt Klavier: Geräusche zum Mitmachen**  
Gottwald Benjamin.  
Carlsen Verlag GmbH, 2022  
978-3-551-52222-1  
Hitzik gabeko albuma  
+8



### Animaliak zergatik dira horrelakoak?

Zergatik dauka muturra hotza txakurrak? Zergatik hegan egiten du arrain hegalaria? Zergatik bizi da koala zuhaitzetara oratuta? Nola lortu zuen barraskiloak bere ebrea? Zergatik dira animaliak gorriak, iletsuak, azkarrak, marradunak... Galdera horien guztien eta beste askoren erantzuna aurkitu dezakezu, bizkor eta arin kontatuta, animalien ipuin hauetan. Zure izatearen zergatien istorioak sortzera ere gonbidatuta zaude.


**Pinguinoaren fraka (eta animalien beste ipuin batzuk)**  
Carlos López eta Christian Inaraja.  
Itzul.: Xabier Olaso.  
Ibaizabal, 2024  
978-84-1370-502-6  
Ipuin ilustratua  
+8



### Munstroek ere ipuinak kontatzen dituzte

Askok pentsatzen dute bibliotekari guztiak arrotzak eta umore txarrekoak direla, baina ez da beti horrela izaten. Albaceteko liburutzearen kasuan, munstro bat topatu du bere liburutegian bizitzen eta lagunak egin dira. Munstroari piloa gustatzen zaiola irakurteaz, eta kontalari lanetan dabil; umeei ipuinak kontatzen dizkie liburutegian bizitzearen truk.

**Munstroa eta liburutzeina**  
Alfredo Gómez Cerdá eta Carmen Queralt.  
Itzul.: Aitor Arana.  
Ibaizabal, 2024  
978-84-1370-503-3  
Eleberria  
+8



### Eguneroko gauzek gauza harrigarriak erakusten dituzte

Gauzen lezioen pedagogian oinarritutako erakusketa zoragarria inauguratu berri dute, eta hauxe da erakusketaren katalogoa: eguneroko gauzak zeinen txundigarriak diren konturatzera garamatza erakusketa honek. Dadoak, frisbeak, euli harrapatzaileak... benetan dira harrigarriak. Haurren jakin-mina eta interesa abiapuntu hartuta, objektu desberdinei begirada berri bat ematen zaie; hasi konkretutik eta abstrakturaino, ezagutzen dugunetik ezezaguneraino. Abiapuntu honek jakintza bilaketa sustatzen du haurrengan, eta marraztera, pentsatzera, imajinatuz, idatzera... eramaten ditu. Gauzak begiratzera eta galderak sortzera gonbidatzen gaitu erakusketa eder honek.

**Gauzen lezioak**  
Gustavo Puerta Leisse eta Elena Odriozola.  
Itzul.: Juan Kruz Igerabide.  
Ediciones Modernas el Embudo, 2024  
978-84-1262-065-8  
Ezagutza liburua  
+8

### Oihaneke kanpalekuen egunerokotasuna ahaztezina da

Oihanean dauden ikerlari, biologo eta zientzialariek uda pasatzera animatzen direnei, landa-ikerketan kanpaleku hau ahaztezina egingo zaie. Bertan lan koadernoak egiten ikasiko dute, landare delikatuak ezagutuko dituzte, Borneoko animalia bakanak, oihaneke odol-xurgatzaileak... Goizean goiz aitzatzeko prest eta lan asko egiteko gogoz joan beharra dago.


**24 ordu oihanean**  
Lan Cook eta Stacey Thomas.  
Itzul.: Unai Brea.  
Tartalo, 2024  
978-84-1969-6  
Komikia  
+8



### Inguruari arreta jartzeko, denbora da ezinbesteko baldintza

Gozatzera gonbidatzen gaitu egunero eta umeoro naturak. Horretarako iparrorraz lana egin dakizuke gida honek: guregandik gertu dauden hogen istorioak eta irudiak biltzen baititu. Ipurtagia, barraskiloa, ahatea, jasmína, txikori belarra, erlea, kolibría, beldarra, elbur malutak, izarputz ondoak, matxinsaltoa, likena... Naturaren 20 une labur, jartzen ditu adibide. Une laburrez osatuta baitaude hala natura nola bizitza. Naturak hartzen duen bezala, une bat gordetzea da ezinbesteko baldintza bakarra, inguru behatu, zentzumenak piztu eta informazioa biltzeko.

**Hemen eta orain naturari buruzko istorioak, patxadaz bizitzeko, begiratzen ikasteko eta gauzarik txikienekin liluratzeko**  
Laura Brand eta Freya Hartas.  
Itzul.: Amaia Apaulaza.  
Txalaparta, 2024  
978-84-19319-82-1  
Ezagutza liburua  
+8



### Etxetik bota dituzte

Dardara eragiten duen beste etxegabete bat gertatu berri da. Bertan bizi ziren Maritxu eta Katalin emakume edadekuak kalean utzi dituzte. Elkar zaintzeko, atsedean hartzeko eta bizirik sentitzeko etxea den leku barik. Datoren egunetan kontzentrazioak eta manifestazioak egiteko dei egin zaiola jendarteari. Auzokideak bikotearentzako etxebizitza bila dabilta.

**Dardarak**  
Joana Aurrekoetxea eta Karmele Mitxelena.  
Ilus.: Irene Irureta.  
Txalaparta, 2024  
978-84-19319-99-9  
Albuma  
+8

### Nora joan da txuri?

Aiita Floren gaur ez da joan eskolara Danelen bila. Zorabiatu egin da eta ambulantiak eraman du ospitalera. Txuri, bere txakurra, desagertuta dago gerotzik. Zoritzarrez, Floren hil egin da. Familiak daukan samina gutxitzeko laguntza handikoa litzateke Txuri arratoi-txakur ipurterre, txiki, zuri, begi-orban-marroiduna eta zaratatsua aurkitzea. Norbaitek ikusi al du? Bateria batek ba al du bere zantzurik? Aurkituz gero, jarri gurekin harremanetan edo Danelen etxera eramanez, arren.

**Aitona Floren**  
Karmele Mitxelena eta Jokin Mitxelena.  
Elkar, 2024  
9788413603353  
Eleberria  
+10



### Gaurko gelazkinaren pilotua galdu da

Herri bateko eskola batean egunero munduko herrialde desberdinetara bidaiatzen duen ikasgea bat dago. Nola egiten duten? Gelazkin bat sortu dute eta, egunero, gelakide bat da pilotu eta hark eramaten ditu beste guztiak Pakistanera, Txinara, Marokora, Nikaraguara... Baina gaur pilotua galdu egin zaie. Leku guztietan miatu ondoren, autobusean aurkitu dute lo. Nigeriarako bidaiak barik geratu dira, pilotuak azalpen hauxe eman du: Nigeriako egoera oso txarra dela eta ez zuela bertara joan nahi. Horregatik, hemendik aurrera gelakideak munduketariak izango dira eta misio berri bat dute: mundua hor eta han hobetzeko erronka hartu dute bere gain.

**Munduketariak**  
Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelena  
Erein, 2024  
ISBN: 978-84-9109-944-4  
Eleberria  
+10



### Gorriak batzen gaitu

Nola bihur dezakezu hiltzera zindoazela zirudien eguna, ospakizun egun? Urte askoan uste izan denaren kontra neska gazte bati hilekoa hortzen zaión egunean, lehen egun horretan, hauek zaizkio ezinbesteko: inguruko laguntza, ulermena eta gozotasuna. Konfiantza, babesa eta ahizpatasuna dira beraz, hilekoaren etorrera ospakizun egun bihurtzera, alegia, ezpainak gorritz margotuta joateko eguna bihurtzera, eraman dezaketena.

**Putzua**  
Goiatz Labandibar.  
Erein, 2024  
978-84-9109-945-1  
Eleberria  
+12

## BESTELAKO BUSTIALDIAK

### Kokoak bilatzeko deialdia zabaldu dute

Kokoak izeneko zazpi izaki txiki marrazketa koadernoan gorde dit. Irudimen handia eskatzen duten proba ezberdinak gairatuz horiek topatzeko lanean dihardute zenbat lagunerekin. Bikoteak osatu, zenbata, puzzleak egin... Parte hartu ahal izateko deialdia zabalki dago, epemugarik gabe.

**Koko joko**  
Ideia/marrazkiak/animazioak: Eider Eibar eta Iskaneeer Sagarmingana  
Testuak: Miren Amuriza  
Garatzailea: Josu Cobelo, 2023  
<https://kokoak.eus/kokojokoa> eta Google Play eta Apple Storen  
+6

### Poesia ukitu daiteke jada

Poemak hitzez bakarrik osatzen ziren garaia amaitu da. Orain, irudiz, soinu eta testuz eginko poemak ere badaude, eta are gehiago, pantaila baten bidez ukitu daitezke: interaktiboak dira ordenagailu eta tabletetan. Ezinezko zirudien baina halako poema batek testura leunak ukitezera, bestearen begiraden aurrean sentitzen dena sentitzera, norberak behar duen espazioa deskubritzera, errukia zer den arakatzera...eraman zaitezke.

**Intimacy**  
Garatzailea: Tibo, 2019  
<https://gbito.itch.io/intimacy>  
+8

### Itzalez itzal saltoka dabilen izaki ezezaguna bistaratu dute

Hiria itzalez beteta dago. Izan ere gauza eta izaki guztiak dute beraien schima, hots, beraien itzala eta espiritua, eta ez lukete inoiz horregandik banandu behar! Baina, ezustean, itzalez itzal saltoka dabilen izaki iluna bistaratu dute hirian, hala jakinarazi dute zenbait herritarrek. Inork ez daki zergatik dabilen espiritua dirudien izaki hori itzalez itzal lekualdatzen. Egin daitekeen bakarra hura laguntzen saiatzea da.


**Schim**  
Garatzailea: Extra Nice, 2022  
<https://schimgame.com/>  
+10

### Paradisua ez da beti atsegina

Paradisua guztietan egoten dira bolada onak eta bolada ez hain onak. Nerabeen egunerokotasunean bezala. Derrentean gurusoak banantzen direnean, gauza berri asko gertatzen dira: institutu berria, lagun berriak... eta gertakari ugari. Guztiak 6 pertsonaiekin gorpuztuak eta 6 ataletan emanak.

**Eden podkasta**  
Garatzailea: ULU Media, 2024  
<http://guau.eus/s/eden>  
+10





### Haurtxoek badakite jakin

Ikuskatzaile talde batek haurrek egunerokoan zer egiten dakiten behatzeko lana hartu du. Sorpresa itzela hartu dute taldeko kideek haurren egiteko eta ikasteko moduak ikusi dituztenean. Behaketa lanaren emaitza da hiztegi irudidun hau. Heldu behatzaileek asko ikasi dute haurrekin, argitaratu duten ekintza-bilduma liburua honetan argi ikus daitekeenez. Heldu orrentzat oso gomendagarria den katalogoa!

**Gu, haurtxoak!**  
Alexandra Garibal eta Christine Davenier.  
Itzul.: Aztiri itzulpen zerbitzuak.  
Tarttalo, 2024  
978-84-19696-27-4  
Albuma  
+2



### Irla txiki txiki batean harribitxia topatu dute

Irla txiki batean ume bat aurkitu omen dute, bakarrik. Itsaso kontuetan oso jakintsua da: animalia mota ugari ezagutzen ditu eta harreman berezia du hala naturarekin nola naturaren fenomenoekin, ilargiarekin kasu. Zer egingo jakintza guzti horrekin eta, abesti bat asmatu du, beste haurren egunak alaitzen dituen bitartean dakiena erakusteko.

**Itsaso gazian**  
Nieves García eta Marina Gibert.  
Itzul.: Amaia Egidazu.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
978-84-9172-395-0  
Albuma  
+2

**Gehiegi agian?**  
Posible da gehiegi amestea? Atseginia, azkarregia, goxogia izan al daiteke inor? Galdera hauei erantzuna topatzen ahalegindu da album honetan Rebecca Dautremmer. Kalera irten eta adin ezberdinetako haurren esperientziak errepertatu die. Haurrek oso argi esan dute: baietz, batzuetan atseginia, azkarregia izan gaitzkeela; eta baita maitekorregiak ere.



**Jakomintxo**  
Rébecca Dautremmer.  
Itzul.: Patxi Zubizarreta.  
Ibaizabal, 2024  
978-84-13706-14-6  
Albuma  
+2

**Nola korapilatu daiteke zapo bat?**  
Urmaelaren ondoan gertatu da: Zapoa aurkitu dute bere mingainarekin korapilatu; arratsalde osoa igaro behar izan dute korapiloa deslotzen laguntzen. Izkina batetik begira egon da barrezka matxinsaltoa bitartean. Bertara hurbildu direnak argitu ezinik dabilta zergatik falta diren urmaelaren intsektu eta xomorroak. Arratsalde berezia izan da.

**Arrats zapo bat**  
Maite Mutuberria.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
978-84-9172-372-1  
Albuma  
+2



### Arrainak ere trebatzen ari dira hor behean

Goizero-goizero Inuitak janari bila iritelen dira Ipar Poloan. Arrantzen egiteko sistema propio eta berezi bat dute eta oso trebeak dira horretan. Batzuetan, ordea, taldean egin behar izaten dute lan arrain bat arrantatzeko. Izan ere, arrainak ere gero eta trebeagoak baitira amuetatik ihes egiten eta, hara, oso laioak diren inuitek orain, askotan, ezin izaten dute jatekoa lortu. Nolatan gertatu liteke hori inuitek dituzten sistema eraginkorren? Gutxitan izaten dugu izotz azpian gertatzen dena ikusteko aukera. Oraingoan, bai, ordea, oraingoan, ikusiko dugu zer gertatzen den hor behean.

**Izotz azpian**  
Michael Escoffier eta Ella Charbon.  
Itzul.: Aztiri itzulpen zerbitzuak.  
Tarttalo, 2024  
978-84-19696-44-1  
Albuma  
+4



### Elefante begi bat galdu da!

Elefante batek begia galdu du; egunero begiarekin jolasten ibiltzen da eta, gaur, gorantz bota duenean, begia errekarra jausi zaio. Elefantea uretara sartu da, baina behin eta berriz saiatu den arren, ezin izan du aurkitu. Uretako animaliei laguntza eskatu ostean oihanekoengana jo du. Oso urduri jarri da! Eskerrak bere laguntza bat agertu den, lasaitzeko esanez. Errekako ura baretu denean, garden-garden bihurtu da, eta elefantearen begiak keinu egin dio elefanteari. Elefanteak aitortu duenez, ikasi du lasaitasunez gauzak errazago konpontzen direla. Kontuz ibili behar da, begirik galdu gabe!

**Begi bat galdu zuen elefantea**  
Bonifacio Ologo eta Marc Taeger.  
Itzul.: Manu López Gaseni.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
978-84-91723-91-2  
Albuma  
+4


**Lagunekin hondartzara joateko aholkuak**  
Udako beroaldiak iritsi dira eta horiekin batera hondartzara joateko grina. Gomendioak urterokoak dira: eguzkitako krema eman, marmokekin kontuz ibili eta igerian ez dakiena heldu baten laguntzarekin uretara sartzea gomendagarria da. Lagun koadrilan joatekotan, beste aholku hauek ere kontuan hartzea komeni da: eraman ura eta fruta hidratatzeko; babestu eguzkitik; sarri-sarri bainatu -krokodilo koltxonetarekin bada, askoz hobe- eta uda gozatu; eta adi hartz urdinarekin eta bere lagunekin, hauek ere hondartzara joatekoak dira eta!

**Baga biga higa**  
Maria Girón.  
Itzul.: Jon Martín-Etxebeste.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
978-84-91723-99-8  
Albuma  
+4



**Gorilek eta katuek elkarrekin hitz egin dezakete**  
Zeinu-hizkuntza ikastaro bat egin ostean, gorila batek komunikatzen ikasi du eta zoon bakarrik bizi denez, lagun bat ekartzeko eskatu die arduradunei. Katu txiki batekin bizi den jarri dute eta oso pozik daude biak. Gertakari hain berezia izanik, mundu guztioko ikertzaileak etorri dira zoorra, biak, gorila eta Eder katua, ezagutzera eta aztertzea. Jakintsuek diotenez, inoiz ikusi den kasu harrigarriena da.

**Eder txikia**  
Anthony Browne.  
Itzul.: Manu López Gaseni.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
978-84-91723-84-4  
Albuma  
+4



### Denetarik babitzen da zulotxoetan

Bost sagutxo dira zulotxo honen arduradunak. Baserriaren inguruan bizi dira, eta janari bila abiatzen diren bakoitzean, zein agertuko eta katua dute mehatxuka atzetik. Azkarrek eta trebeak direnez, egunero lortzen dute euren zulotxora jatekoarekin itzultzea. Jatekoarekin eta beste gauza askorekin. Amaiezina eta askotarikoa baita saguek gordetakoen zerrenda. Hurriruta geratuko zara.

**Bost sagutxo**  
Maria Girón.  
Itzul.: Xabier Olaso.  
Pamiela-Kalandraka, 2024  
ISBN: 978-84-9172-382-0  
Albuma  
+4



### Aitita eta amamaren etxea, oporretarako lekurik onena


Zein izan zen zure txikitako oporretako lekurik gogokoena? Unibertsitateko Irakasle Eskolako ikasleek egindako ikerketa baten arabera, ikasleen %80aren txikitako oporretako lekurik gustukoena aitita eta amamaren etxea da, eta hain zuzen beraiekin, aitona eta amonarekin, zuten gustukoen oporretara joatea. Beraz, haurtzaroko oporraldirako leku eta konpainia gustukoena aitita eta amamarena da jende gehienarentzat. Zergatik ote? Erantzuna aurkitzeko ikasleen istorio nitzen peskizian dabilta. Ondoren, horien artean arakutzen hasiko dira, fenomeno honen arrazoiaren xerka. Istorio horietako bat aurkituko duzu hemen.

**Luka eta Utx: bizitza ederra da**  
Aurélie Valognes eta François Ravard.  
Itzul.: Imanol Salegi.  
Ibaizabal, 2024  
978-84-137059-0-3  
Ipuin ilustratua  
+6

### Errinozero bat egon daiteke edonoren gelan

Zuk ikusten ez duzuna, besteek ikusi dezakete? Zuk ez ikusi arren, benetan frogatu daiteke zerbait ez dagoela hor? Eta posible bada, nola egiten da hori? Izan ere, zerbait benetan hemen dagoela frogatzea baino are zailagoa da zerbait ez dagoela frogatzea. Posible al da zerbait hemen ez dagoela frogatzea? Posible al da zure gelan errinozero bat ez dagoela frogatzea? Hona hemen zer den eta zertarako balio duen filosofia!

**Ludwig eta errinozeroa**  
Golden Cosmos eta Noemi Schneider.  
Itzul.: Beñat Sarasola.  
1545 argitalebea, 2024  
978-84-129376-0-2  
Albuma  
+4



### Sekretu batzuk kontatu egin behar dira

Inoiz kontatu dizute sekretu bat eta denborara sekretu hori beste norbaiti esan diozu eta hark beste bati, eta azkenean, onerako izan? Normalean, sekretuak ondo gordetzea komeni da, baina badaude bestelakoak ere: zenbait sekretu elkar trukatzeko ditugunak, denon onerako izaten da, denok irabazten dugu. Garai desberdinetako ezagutzak belaualdiz belaualdi irau du, sarri, sekretuen bitartez. Baina merezi du jakituria biltzen duten sekretuak kontatzea, natura eta lurraren onurarako badira ere gehiago.

**B planeta**  
Lorena Martínez Oronoz.  
Denon artean, 2024  
978-84-19529-64-0  
Hitzik gabeko albuma  
+6



- 1 Gu, haurtxoak!
- 2 Jakomintxo
- 3 Itsaso gazian
- 4 Arrats zapo bat
- 5 Izotz azpian
- 6 Baga biga higa
- 7 Begi bat galdu zuen elefantea
- 8 Eder txikia
- 9 Bost sagutxo
- 10 Ludwig eta errinozeroa
- 11 Luka eta Utx: bizitza ederra da
- 12 B planeta
- 13 Itsaso bete malko

- 14 Koloretako intsektuak
- 15 Milaloreren lorategi pozoitsu
- 16 Zertarako balio du?
- 17 Spinne Spielt Klavier
- 18 Gauzen lezioak
- 19 Pinguinoaren fraka
- 20 Munstroa eta liburuzaina
- 21 24 ordu oihanean
- 22 Dardarak
- 23 Hemen eta orain
- 24 Aitona Floren
- 25 Munduketariak
- 26 Putzua

Liburu gida, edo errealtateari fidela izateko, liburuak informazio iturriztat hartu dituen albiste-ori hau esku artera iritsi bazaizu, GALTZAGORRI elkarteak 2018tik martxan dituen Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegietan parte hartu duen irakasle edo bibliotekaria zarelako da. Edo, baitaiteke Euskal Haur eta Gazte Literaturaren marea biziak tentatu duen igerilari gaztea izatea. Nolanahi den, 2025ean ere eskolako bitartekariaren begiak zorrotzen ahaleginduko gara: ikasleak irakurketara zaletzeko ballabideak eta estrategiak gerturatu dizkizuegu beste behin. Liburuez hitz egiteko modu asko daude eta gu liburuen itsasoan urperatu eta kazetari jolasera jolastu gara berripaper honetan. Gure albisteak ez daude beti errealtateari hertsiki lotuak: liburuak eta liburuen gaiak bihurtu ditugu ikerketa berritzaileen helburu, erakusketak antolatzeko aitzakia, inoiz argitaratu ez diren primizia, galdutakoak aurkitzeko iragarri, lege berrien iragarri, kontzentrazio deialdi... Ziprizindu ditugu literatur kalitatearen galbahea pasa duten Euskal Haur eta Gazte Literaturaren argitaratu berriak diren hainbat izenburu. Nazioarteko hitzik gabeko aleak ere topatuko dituzu, baita bestelako fikzioen tantak ere. Jolasteko ideiez betetako irakurgaiak albigestegi hau zure tranpolina izatea nahi genuke. Zure burua liburuen itsaso honetara botatzera ausartzen bazara, hurbil dituzun haur eta gazteak ziprizintzera iritsiko zarelako.

Adi, prest,... egin salto!

[www.ibbygaltzagorri.eu](http://www.ibbygaltzagorri.eu)  
<https://www.ibbygaltzagorri.eu/eu/formazioa/irakasleentzako-lantegiak>

Donostia, 2025eko martxo  
© Testuak: Sara Bikandi, Mireia Delgado eta Izaskun Jauregi.  
© Irudiak, diseinua eta maketazioa: Lorena Martínez.  
Software librearekin ilustratua eta maketatu.  
© Argitaratzailea: Galtzagorri elkarte.  
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eu  
Inprimaketa: Itxaropena S. A.  
L.G.: D 238-2025



Haurrak liburuz bustitzeko eginak

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO IRAKASLEENTZAKO LANTEGIAK